# 2025eko jarduera bilana

# 2026ko aitzinikusi jarduera programa

## EEPren hizkuntza politikaren esparrua

- **Hizkuntza Politika Proiektua: "Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun"**

  - EEPk eraman euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren dokumentu estrategikoa, 2006ko abenduaren 26an onartua

  - hamabi erronka nagusi hiru familiatan sailkatuak:
    - **Euskararen familia bidezko transmisioa**, lehen haurtzaroaren harrera eta irakaskuntza
    - **Euskararen erabilpena**: hedabide, aisialdi, argitalpen, bizitza sozial eta toponimian
    - **Zeharkako eremuak**: helduen euskalduntzea, euskararen kalitatea, ikerkuntza eta motibazioa

- **2018-2022 Proiektu Estrategikoa**

  - 2018ko urriaren 19ko EEPren Biltzar Nagusiak onartua, EEPren estrategia 2018-2022 aldirako finkatzen du.

  - Hizkuntza Politika Proiektuaren jarraipena da, honen helburu nagusia eta lehentasunezko hartzaileak berretsiz, baita obratzeko printzipioak ere:
    - politika boluntarista
    - eragileen eta hiztunen parte hartze askearen errespetua
    - indarrean den lege-esparruan
    - politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arlokako politiketan txertatzea

  - Hizkuntza politikaren testuinguru berria kontuan hartuz aldi berean:
    - NOTRe Legea "eskualde hizkuntzen sustapena" eskumena ofizial bilakatu zuena eta eskumen partekatua zela baieztatu zuena
    - Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratua, sinatzaileak, bakoitzak bere eskumeneko esparruetan, hizkuntza politikan arduratsu jokatzera engaiatu baitziren
    - 2016ko EEPren ebaluazio txostenaren gomendioak
    - 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak
    - Euskal Elkargoaren sortzea eta 2018ko ekainaren 23ko Elkargo Kontseiluaren "euskararen aldeko hizkuntza politika" onartzea

  - EEPren esku-hartzearen eremua definitzen du, eremuz-eremu, hizkuntza-politikaren hiru erronka-ardatzak kontuan hartuz:
    - Euskararen transmisioa garatzea, irakaskuntzaren bidez, lehen haurtzaroaren, familia transmisioaren eta norbanako helduen euskalduntzearen bidez
    - Euskararen erabilera garatzea: egonaldiak, kirol jarduerak, argitalpena, komunikabide digitalak, bizitza sozialeko eragileak
    - Aldi berean, zeharkako eremuak eta funtzio euskarriak egituratzea, hizkuntza transmisioaren eta erabileraren erronken arrakasta bermatzeko: euskarazko formakuntza profesionala, euskara gaitasunaren egiaztapena, hizkuntza baliabideen baieztapena, eragile pribatuentzako dirulaguntza, mugaz gaindiko lankidetza, politiken ebaluazioa eta jarraipena, komunikazioa-sentsibilizazioa

- **2026-2032 Hitzarmen sortzailearen berritzea**

Kasik 20 urteren obratzearen ondotik, kausitu diren emaitzak garrantzitsuak dira :

- EEP tresna eta kideen arteko partaidetza lana iraunkortu dira; EEP garatu da baliabideei doakionez (giza eta finantza mailan), ekintza eremu berriak zabaldu dira progresiboki;
- Hizkuntza politika publikoa oinarri sendoen gainean egituratu da: irakaskuntzari buruzko esparru-hitzarmena eta euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren garapenerako urte anitzeko programazioaren 1. eta 2. atalak, hizkuntza alorrean lanean diharduten eragileei irekitako fondoaren bilakaera eta indartzea, mugaz gaindiko lankidetzako esparru-hitzarmena, sektoreko dispositibo bereziak (argitalpena, hedabideak, ikasleentzako bekak...);
- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzak aitzina egin du lurralde osoan eta sail guziendako. Ondorioz, 2025-2026 ikasturtean, Ipar Euskal Herriko lehen mailako ikastetxeen % 71k eskaintzen du irakaskuntza elebiduna oren parekotasunean edo murgiltze ereduan, eta eskolatutako ikasleen % 43.8k (eskaintza horrek ikastetxeen % 42 eta ikasleen % 24.5 hunkitzen zituelarik 2004-05 ikasturtean EEPren sortzean);
- 2021ean egindako inkesta soziolinguistikoak agerian uzten du lehen neurketetatik euskara hiztunen galera etengabea gelditu dela.

Ekintza eta emaitza horiek erregularki ebaluatuak izan dira, eta ondoz ondoko ikuskatze orokorrek argi eta garbi balioetsi dute EEP tresnaren egokitasuna eta eraginkortasuna hizkuntza politika baten garatzeko, IPEko kideekin eta kideen izenean.

Haatik, botere publiko guzien arteko partaidetzarekin eta EEPren eta gizarte zibilaren ekintza erabakigarriarekin lortu lehen emaitza horiek hauskortasunak dituzte oraindik. 2024an prospektiba soziolinguistiko bat landu zen, 2050ean euskararen egoerari buruzko proiekzioak ukaiteko. Prospektiba honek erronka garrantzitsuak agerian uzten ditu.

Jokoan diren erronken jakitun, EEPko kideek beharren zerrendatze lan zehatz bat engaiatu dute 2023an, ondoko urteetarako. Ingeniaritza lan horrekin batean, prospektiba soziolinguistikoaren desmartxak aktibatu beharreko palankak identifikatu ditu, 2050ean % 30eko hiztun heina lortzeko gai izateko: garatzen segitzea euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza orokortzearen joera ukaiteko, eta ikasleen ibilbide elebidunen jarraipena bermatzeko eskolatzean zehar, helduen euskalduntzea zinez garatzea, eta euskararen presentzia soziala indartzea.

Datu soziolinguistiko eta erronka demografiko horiekin koherentzian, Euskararen Erakunde Publikoko kideek – Estatuak, Akitania Berria Eskualdeak, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak – 2026ko urtarrilaren 7an berritu hitzarmen sortzaile baten inguruan IPEn parte hartzeko borondatea baieztatu dute.

**2025eko jarduera bilduma…**

## 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPk 2024ko urriaren 17ko Biltzar Nagusian adostu 2024-25erako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin (HM), alor guzietan:
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Bokaleko auzapezarekin kontaktua galdegina, erantzunik gabe
            - Gunerik ez aztergai
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa
            - Baionan gune bat IKEZekin zehazteko lanaren segitzea
      - 2. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Gunerik ez aztergai
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa
            - Gunerik ez aztergai
          - Murgiltze irakaskuntza:
            - Gunerik ez aztergai
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa:
        - Lizeoekin ez da lanketarik izan sail elebidunen plantan ezartzearen bideragarritasuna aztertzeko
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
        - CM2 (EEMBko A2 maila): 2024-25eko ebaluazioaren obratzea eskola publiko eta pribatu katoliko guzietan
        - 3.ean (EEMBko B1/B2 maila): kolegio publiko eta pribatu guzietan 2024-25 ebaluazioen obratzea konfigurazio berrian (B1

**… 2026ko jarduera programa**

## 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**

  - EEPk 2025eko urriaren 16ko Biltzar Nagusian adostu 2025-26rako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin (HM), alor guzietan:
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Auzapezekin harremanetan sartzea: Baiona (LHS), Angelu, Bokale, Ahurti
            - Egingarritasun ikerketak hitzartuak diren guneetan
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa
            - Baionan gune bat IKEZekin zehazteko
      - 2. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak sail elebidunak irekitzeko:
          - Irakaskuntza publikoa:
            - Miarritzeko Jean Rostand kolegioko kohorteen segitzeko ikerketa teknikoa
          - Irakaskuntza pribatu katolikoa
            - Gunerik ez aztergai
          - Murgiltze irakaskuntza:
            - Irakaskuntza gune berriak irekitze-proiektuendako laguntza teknikoa (Seaskaren eskariz)
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa:
        - Agertu diren beharrei erantzuteko sail elebidunak plantan ezartzearen egingarritasuna aztertzeko lanen jarraipena lizeoekin
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
        - CM2 (EEMBko A2 maila): 2025-26ko ebaluazioaren obratzea eskola publiko eta pribatu katoliko guzietan
        - 3.ean (EEMBko B1/B2 maila): kolegio publiko eta pribatu guzietan 2025-26 ebaluazioen obratzea konfigurazio berrian (B1

diagnostikoaren ebaluazioa urte hastapenean eta horren arabera B1 edo B2 ebaluazioa urte bukaeran)
- Lizeoaren bukaeran (EEMBko B2 mailako gaitasun agiri berria sortzeko obren jarraipena):
  - B2 ziurtagiriaren bertsio desmaterializatua publiko zabalarentzat ezartzeko lanen jarraipena
- Baxoaren eta kolegioko brebetaren diplomak: 2025eko apirilaren 10ean Ministeritzan egindako bileran, frantses-euskara sail elebidunaren esparrua definitzeko eskaeraren baitan, sail elebidunean ziren ikasle guzientzako frantses-euskara elebitasun aipamena idazteko HMri galdetzea. 2025eko ekainaren 2an, lan bilkura bat egin da Errektoretzan EIZNko ordezkariekin; ohar baten idaztea eta errektoreari igortzea
- B1/B2 mailako ziurtagiriak emateko aldi baterako dispositiboa, hirugarren bukaeran diren ikasle elebidunentzat eta murgiltzean direnentzat: 2024ko irailean EEPk ikastetxeetara igortzea ekaineko egiaztagiriak
- Ziurtagiria igortzeko aldi baterako dispositiboa, eredu elebidun edo murgiltze batean, terminalaren bukaeran: 2024ko irailean EEPk ikastetxeetara igortzea ekaineko egiaztagiriak
- Lehen mailako irakasleen formakuntza dispositiboak irakaskuntza elebidunaren berezitasunetara egokitzea:
  - Jatorrizko formakuntza: HNrekin eta UBMekin lan berezirik ez 2024-25 urtean berezitasun horiek hobeki kontuan hartzeko
  - Formakuntza jarraikia:
    - Etengabeko lana: 2024-25eko Hezkuntza Ministerioaren formakuntza jarraiki planaren obratzea
  - UD Euskararen eta euskarazko irakaskuntza: 2024-25. urtean zehar HM eta UBM-arekin batera formakuntzei dagozkien dispositiboei buruzko hausnarketa-lanik ez da egin
  - Sail elebidun publikoko irakasleen formakuntza ekintza puntualak: 2024-25. urtean zehar HMrekin batera formakuntzei dagozkien dispositiboei buruzko hausnarketa-lanik ez da egin
    - Irakatsitako hizkuntza mailaren hobetzea: euskara hobetzeko formakuntza berezi bat plantan ezartzea (gramatika eta ahozko jarioa), 3 ereduetan eta 1. eta 2. mailetako irakasle boluntarioei proposatua 2024ko irailetik 2025eko otsailera

---

diagnostikoaren ebaluazioa urte hastapenean eta horren arabera B1 edo B2 ebaluazioa urte bukaeran)
- Lizeoaren bukaeran (EEMBko B2 mailako gaitasun agiri berria sortzeko obren jarraipena):
  - Ziurtagiriaren bertsio desmaterializatuaren sortzea: lanen segitzea
- Baxoaren eta kolegioko brebetaren diplomak: 2026/01/12an HMn izandako bilkuraren ondorioz, EIZNk abiaturiko, irakaskuntza ibilbidean eta azterketetan euskararen presentziari eta onarpenari buruzko esparru baten definizioari buruzko lanketan parte hartzea,
- B1/B2 mailako ziurtagiriak emateko aldi baterako dispositiboa, hirugarren bukaeran diren ikasle elebidunentzat eta murgiltzean direnentzat: 2025eko irailean EEPk 2025eko ekaineko ziurtagiriak ikastetxeei igortzea
- Ziurtagiria igortzeko aldi baterako dispositiboa, eredu elebidun edo murgiltze batean, terminalaren bukaeran: 2025eko irailean EEPk 2025eko ekaineko ziurtagiriak ikastetxeei igortzea
- Lehen mailako irakasleen formakuntza dispositiboak irakaskuntza elebidunaren berezitasunetara egokitzea:
  - Jatorrizko formakuntza: berezitasunak hobeki kontuan hartzeko lana HMrekin eta BMUko arduradunekin
    - EIZNren, DGSIPen eta DGRHren babesean engaiatu desmartxaren jarraipena, tokiko hizkuntzen erakunde publikoekin batera
    - EEPk galdeginik, Errektoretzako Euskara ikuskariaren parte hartzea Bordeleko unibertsitateak eta IIFGIren lan taldean tokiko hizkuntzen 2. mailako "M2E" masterraren maketa lantzeko
  - Formakuntza jarraikia:
    - Etengabeko lana: Hezkuntza Ministerioaren formakuntza jarraiki planaren obratzea
    - Sail elebidun publikoko irakasleen formakuntza ekintza puntualak: HMrekin batean, formakuntza dispositiboei buruzko gogoeta
    - Irakatsitako hizkuntza mailaren hobetzea: euskara hobetzeko formakuntza berezi bat plantan ezartzea (gramatika eta ahozko

## 2025eko jarduera bilduma…

- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
  - Esparru-dokumentuaren moldaketa, murgiltze irakaskuntzari buruzko esparruaren bilakaera barne hartuz
  - "Publiko zabalaren" dokumentuaren egokitzapena hasi da esparru-dokumentu berriaren arabera, eta 2025-26an bukatu beharko da
- 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2025eko eskola sartzeko eskola mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean
- Euskarazko murgiltze irakaskuntza garatzeko politika bultzatzailea, frantsesaren eta eskualdeko hizkuntzaren pareko ezagutza segurtatzeko xedeari erantzuten diona:
  - HMk eta IKEZek irakaskuntza publiko eta pribatu konfesionalean plantan ezarri dituzten murgiltze ereduei laguntzea eta jarraipena egitea
  - Ama-eskolatik seigarreneraino kohorteen segimendu baten plantan ezartzea 2025-26ra gibelatua izan da
  - Murgiltze irakaskuntza ereduko proiektuen sustatzaileentzako gida: eskola guzietara bidaltzea eta irakasle taldeen informazio ekintzak
  - Irakaskuntza hori ezarri nahi duten irakasle taldeei laguntza teknikoa ematea
  - Gibelatu da irakaskuntza elebidunaren hautazko izaeraren problematikari aurre egiteko aurreikusitako EEPren barne-lana, batez ere murgiltze-ereduaren bidez
- Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:
  - Hitzarmena berritzea: Hitzarmen berriaren idazteko lan hitzartuaren segitzea, 2025-26an bukatzekoa
  - Hitzarmen berriaren onartzea eta izenpetzea 2025-26ra gibelatuak izan dira
- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren orduak gehituz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - 1. ardatza. Ikastetxe elebidunei euskarazko ordu kopurua zabaltzen uztea:
    - 2025ean ez da euskarazko HEDI berririk plantan ezarri, ez baita aukerarik atzeman
    - Jadanik euskaraz HEDI bat irakasten duten irakasleen postuak zehaztea, HEDIen irakaskuntzak iraunkorki mantentzeko:

## … 2026ko jarduera programa

jarioa), 3 ereduetan eta 1. eta 2. mailetako irakasle boluntarioei proposatua

- 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
  - Esparru-dokumentuaren moldaketa, murgiltze irakaskuntzari buruzko esparruaren bilakaera barne hartuz eta honen hedatzea
  - "Publiko zabalaren" dokumentuaren egokitzea esparru-dokumentuari begira eta honen hedatzea
- 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2026ko eskola sartzeko eskola mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean
- Euskarazko murgiltze irakaskuntza garatzeko politika bultzatzailea, frantsesaren eta eskualdeko hizkuntzaren pareko ezagutza segurtatzeko xedeari erantzuten diona:
  - Irakaskuntza publiko eta pribatu katolikoan plantan diren murgiltze ereduen laguntza eta segimendua
  - Ama-eskolatik seigarreneraino kohorteen segimendua: modalitateen definizioa eta segimendua ezartzea
  - Murgiltze irakaskuntza ereduko proiektuen sustatzaileentzako gida: eskola guzietara bidaltzea eta irakasle taldeen informazio ekintzak
  - Irakaskuntza hori ezarri nahi duten irakasle taldeei laguntza teknikoa ematea
  - EEPn lan amankomuna egitea irakaskuntza elebidunaren izaera fakultatiboaren arazoari heltzeko, bereziki murgiltze-metodoaren bidez
- Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:
  - Hitzarmena berritzea: hitzarmen berria idazteko lan hitzartua bukatzea
  - Hitzarmen berriaren onartze eta izenpetzea
- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren orduak gehituz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - 1. ardatza. Ikastetxe elebidunei euskarazko ordu kopurua zabaltzen uztea:
    - Kolegio eta lizeo elebidun guzietan HEDIen euskarazko irakaskuntza berriak obratzen segitzea
    - Jadanik euskaraz HEDI bat irakasten duten irakasleen postuak zehaztea, HEDIen irakaskuntzak iraunkorki mantentzeko:

## 2025eko jarduera bilduma…

- Lekuen egoera-akta HNZDZeko zerbitzuekin egina 2024ko irailean
- Errektoretzak aurkitutako postu ez profilatuen profilatzea
- Ikuskaritzak begiztatu giza baliabide erabilgarriek bete ditzakeen postuak profilatzea: ez da bilkurarik egin ikastetxeen zuzendariekin, aurreikusia zen bezala, eta lanpostu berriak sortzeko aukerak hautemateko, euskarazko ikuskariak sartzean banatutako informazio-fitxak erabili dira
- Beren ikasgaia euskaraz irakasteko gai diren irakasleen mintegia zabaltzea:
  - Euskaraz irakasteko prest diren irakasleak atzemateko etengabeko behaketa euskarazko ikuskariekin
  - Ministerioari eskaera, 2. mailan eskualdeko hizkuntzan eta hizkuntzaren irakasteagatik gehitua den diru kopuru berezi bat emateko, lizeoan frantses-eskualdeko hizkuntza sail elebidunaren antolaketa-markoa definitzeko eskaerarekin loturik
- 2. ardatza. Formakuntzaren bidez, irakasle boluntarioak prestatzea, beren irakasgaiaren irakaskuntza euskaraz eman ahal izateko: 2024-25 ikasturtean, irakaskuntza publikoko kirol irakasle baten formatzea, 2025etik euskaraz irakasten du
- 3. ardatza. Euskara hutsean diren ordutegi-kuotak urratsez urrats emendatzea, azterketetan eta material pedagogikoan dispositibo egokituak ezarriz:
  - BDN eta baxoa: 2025eko apirilaren 10eko bileran euskarazko azterketei buruz HMri eskaera: salbuespen baten bidez, Seaskako ikasleentzat bezala sare publiko eta pribatu konfesionaletako ikasleentzat, BDNeko zientzia probak euskaraz pasatzea. Erantzunik ez baxoko berezitasuna eta ahozko handia euskaraz pasatzeko
- Lizeoko eta Baxoko erreformaren testuetan irakaskuntza elebiduna kontuan hartzea:
  - HMri eskaera 2025eko apirilaren 10eko bileran, erreformari buruzko testuetan frantses-eskualdeko hizkuntza sail elebidunaren antolaketa esparrua zehazteko (nazioarteko eta Europako sailak biltzen dituzten testuen gisa)
- Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraikitasun tasak hobetzea:

## … 2026ko jarduera programa

- Egoera-akta eta proposamenak EEPrengandik
- Errektoretzak egin profilaketak
- Ikuskaritzak begiztatu giza baliabide erabilgarriek bete ditzakeen postuak profilatzea: bilkurak eskoletako zuzendariekin, erretiratuko diren irakasleak identifikatzeko eta lanpostu berriak sortzeko
- Beren ikasgaia euskaraz irakasteko gai diren irakasleen mintegia zabaltzea:
  - Euskaraz irakasteko prest diren irakasleak atzemateko etengabeko behaketa
  - Ministerioari baimena eskatzea Euskarako BMIGAren balio bikoitza beste ikasgaietara zabaltzea (biologia, matematikak, gorputz heziketa, artea)
  - Ministerioari eskaera, 2. mailan eskualdeko hizkuntza eta hizkuntza irakasteagatik gehitua den diru kopuru berezi bat emateko
- 2. ardatza. Formakuntzaren bidez, irakasle boluntarioak prestatzea, beren irakasgaiaren irakaskuntza euskaraz eman ahal izateko: 2026rako formakuntza-beharrak antzematea (2023-24ko inkestan eta euskara ikuskariaren zaintzan oinarrituta)
- 3. ardatza. Euskara hutsean diren ordutegi-kuotak urratsez urrats emendatzea, azterketetan eta material pedagogikoan dispositibo egokituak ezarriz:
  - BDN eta baxoa: euskarazko probei buruzko HMri eskaeraren jarraipena (matematikak lehenean, berezitasuna eta ahozko handia baxoan)
  - Etorkizuneko material pedagogikoaren ekoizpena orientatzea, irakaskuntza publikoan irakasgai berriak euskaraz zabaltzearen ondorioz sorturiko beharren arabera
- Lizeoko eta Baxoko erreformaren testuetan irakaskuntza elebiduna kontuan hartzea:
  - Lizeoaren erreforma plantan ezartzeko egoera-aktaren gaurkotzea: kopuruak, bilakaerak, antolaketa…
  - EINkin lizeoan irakaskuntza elebidunerako esparru ofizial bat definitzeari buruzko elkarlana, frantses-eskualdeko hizkuntza sail elebidun gisa, 2026ko sartzean testu ofizial bat argitaratzeko helburuarekin

## 2025eko jarduera bilduma…

- Irakaskuntza elebidunean sartze tasen hobetzeko lana:
  - Gurasoak beren haurrak irakaskuntza elebidunean eskolatzeko sentsibilizatze dispositibo partekatua: sentsibilizazio “pack”aren banaketa 2024ko sortze deklarazioen % 61 kasuetan, sentsibilizazio liburuxkaren eguneraketa
- Jarraikitasun tasak hobetzeko lana ikas-ibilbidean zehar: jarraikitasuna CM2 – Kolegioa / Kolegio – lizeoa:
  - Egoera-akta: jarraipen tasen eguneraketa, 2023tik 2024ra
  - Kolegioan irakaskuntza elebidunaren jarraipena sentsibilizatzeko, bideo/liburuxka euskarri bikoitzaren hedatzea

▪ Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:

- Beharrezkoak izanen diren irakaskuntzako giza baliabideen aurreikuspena: beharrezkoak diren irakaskuntza baliabide eta baliabideen aurreikuspen bat barne hartuko duen urte anitzeko programazioa ez da plantan ezarri
- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza:
  - Euskarazko formakuntza trinkoa, gaur egun frantsesez aritzen diren 1. eta 2. mailako irakasle tituludunentzat eta euskaraz irakasteko borondatezkoentzat:
    - 2024-25ean irakaskuntza publikoko 2. mailako kirol irakasle baten formakuntza plantan ezarria
    - 2025-26ko irakaskuntza publikoko 2. mailako fisika-kimika eta kirola irakasten duten bi irakasle nahianten formakuntzaren antolaketa
  - Ikasle euskaldunen sentsibilizazioa euskararen eta euskarazko irakaskuntzako lanbideei buruz: 2024ko abenduaren 13an, MEEF ikasleei aurkezpena
- "Euskaraz lan egin" beken dispositiboa
  - Euskararen inguruko formakuntza trinkoarendako dirulaguntza norberaren proiektuetarako arrazoi pertsonalengatik geldialdian diren funtzio publikoko irakasle titularrendako eta lehen eta bigarren mailako eredu elebidunetan euskaraz irakatsi nahi dutenendako, eta EIKLrako etorkizuneko hautagaientzat: 5 onuradun 2024-25ean
- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza trinkoa:
  - 1. mailako 2 irakasle eta 2. mailako 3 irakaslerentzako (Matematikak, Fisika Zientziak, Biologia) obratzea 2024-25ean

## … 2026ko jarduera programa

▪ Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraikitasun tasak hobetzea:

- Irakaskuntza elebidunean sartze tasen hobetzeko lana:
  - Gurasoak eskolatze elebidunaren inguruan sentsibilizatzeko dispositibo mutualizatua: sentsibilizazio “pack”-aren zabaltzea, “pack”-aren hedatzearen hobetzea, komunikazio-ekintza berriak, liburuxkaren datuen eguneratzea
  - Publiko zabalarendako hitzaldiak/mahai-inguruak/tailerrak
- Jarraikitasun tasak hobetzeko lana ikas-ibilbidean zehar: jarraikitasuna CM2 – Kolegioa / Kolegio – lizeoa:
  - Egoera-akta: jarraipen tasak, jarraipena hobetzeko tokiko ekintzak, bultzatu beharreko ekintza berrien definizioa
  - 1. eta 2. mailako ikasle eta gurasoendako informazio/sentsibilizazio bilkurak
  - Kolegioan irakaskuntza elebidunaren jarraipena sentsibilizatzeko, bideo/liburuxka euskarri bikoitzaren hedatzea

▪ Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:

- Beharrezkoak izanen diren irakaskuntzako giza baliabideen aurreikuspena: urte anitzeko programazio bat plantan ezartzea, beharrezkoak diren irakaskuntza baliabide eta baliabideen aurreikuspen bat barne hartuko duena
- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza:
  - Euskarazko formakuntza trinkoa, gaur egun frantsesez aritzen diren 1. eta 2. mailako irakasle tituludunentzat eta euskaraz irakasteko borondatezkoentzat:
    - 2. mailako 2 irakasleentzat abian ezartzea
    - 2026-27rako nahiant diren irakasleak kontratatzea, formakuntzaren antolatzea
  - Ikasle euskaldunen sentsibilizazioa euskararen eta euskarazko irakaskuntzako lanbideei buruz: irakaskuntzako lanbideei buruzko sentsibilizazio ekintzak
- "Euskaraz lan egin" beken dispositibo
  - Euskararen inguruko formakuntza trinkoarendako dirulaguntza norberaren proiektuetarako arrazoi pertsonalengatik geldialdian diren funtzio publikoko irakasle titularrendako eta lehen eta bigarren mailako eredu elebidunetan euskaraz irakatsi nahi dutenendako, eta EIKLrako etorkizuneko hautagaientzat: 6 onuradun

## 2025eko jarduera bilduma…

2025-26 formakuntzarako hautagai baten kontratatzea, lizeo profesionaleko bioteknologia opzio osasuna eta ingurumena irakasle bat

- Ikasmaterialaren ekoiztea: Ikas pedagogia zentroa
  - Ikas/Errektoretza/EEP 2021-2025 hitzarmen koadroaren obratzea
  - EEP eta Ikasen arteko hitzarmenaren gehigarriaren obratzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2024ko argitalpen programa diruztatzea (hitzarmenaren 2024 eranskina):
    - *Amestoki goxoa*, Antton Kazabon eta Leire Iparragirreren albuma, 1. & 2. zikloentzat, aurreikusi kostua: 6.295 €;
    - *Mendia eta ni*, Irati Peluaga eta Edurne Urrestarazuren albuma, 3. zikloarentzat, aurreikusi kostua: 6.609 €;
    - *Tartaro*, Xantal Barnetxe eta Laure Gomezen albuma, 2. & 3. zikloentzat, aurreikusi kostua: 4.964 €;
    - *Matematikako Metodo Heuristikoa (MHM) asmakarien kutxak 5 mailentzat*, CPtik CM2raino, eta bideoen euskaratzea, aurreikusi kostua: 19.775 €;
    - *Euskara 4* eskuliburuaren argitaratzea eta Régine Elosegik baliabide osagarrien sortzea, aurreikusi kostua: 18.939 €;
    - *Euskara 2. mailan (2024)*, euskara irakasteko baliabideen sortzearen segitzea 2. mailan programa berrien arabera (kostua: 20.000€, postu erdi baten diruztatzea 2024ko urtarriletik abendura)
    - *Historia eta geografia kolegioan (2024)*, pedagogia tresnen sortzen segitzeko postu erdi baten diruztatzea 2024ko urtarriletik abendura, eta Historia XIX. mendea bi dokumentu osagarriren argitaratzea, aurreikusi kostua: 33.552 €;
    - *Matematikak 2. mailan (2024)*, pedagogia tresnen sortzea (segida), kostua: 1.444 €;
    - 4 inprimaldi berri:
      - *Gorputz eta kirol heziketa 2. zikloan* (Accès éditions) berrargitalpena; kostua: 1.514 €;
      - *Haramat CE2*, trebatzeko fitxategia eta hiztegia, Hatier itzulpenak; kostua: 5.694 €;
      - *Euskara 3* eskuliburua, kostua: 5.134 €;
      - *Zientziak kolegioan*, 5 berrargitalpen, kostua: 9.712 €:

## … 2026ko jarduera programa

- Sail publiko eta pribatu katolikoko irakasleen formakuntza trinkoa:
  - 2. mailako 4 irakaslerentzako abian ezartzea
  - 2026-27rako nahiant diren irakasleak kontratatzea formakuntzaren antolaketarako

- Ikasmaterialaren ekoiztea: Ikas pedagogia zentroa
  - Ikas/Errektoretza/EEP 2021-2025 hitzarmen koadroaren obratzea
  - EEP eta Ikasen arteko hitzarmenaren gehigarriaren obratzea
  - Esparru-hitzarmenaren berritzea:
    - 2021-2025eko hitzarmenaren ebaluazioa
    - Hitzarmen berria idazteko lan hitzartua
    - Onartzea eta izenpetzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2025eko argitalpen programa diruztatzea (hitzarmenaren 2025eko eranskina):
    - *On egin!,* EHLG, Waterfamily, Ikas-bi et Ikasek sortu zientzia saileko mahai jokoa, 2. eta 3. zikloentzat, aurreikusi kostua: 15.074 €
    - *Intza eta Tomas 3*, Elise Dilet eta Antton Hariñordokik sortu albuma, 3. eta 4. zikloentzat, aurreikusi kostua: 6.600 €;
    - *Matematikak zubereraz 2. ziklorako:*
      - CP, CE1 eta CE2 *Asmakarien kutxen* fitxen eta araberako ikus-entzunezko euskarrien egokitzapena eta argitalpen digitala;
      - Canoperen *Les Fondamentaux* saileko 31 bideoren egokitzapena eta argitaratzea, aurreikusi kostua : 1.600 €;
    - *Euskara 4 eta 5*, sorkuntza (R. Elosegi) eta euskarrien argitaratzea:
      - *Euskara 5*, eskuliburua ;
      - *Euskara 4 eta 5*, irakaslearen gidaliburua;
      - *Euskara 4 eta 5*, *Atxikaraua*, hizkuntza arau-bilduma;
      - *Euskara 4 eta 5*, *Trebaliburua*, hizkuntza jarduera-bilduma, aurreikusi kostua: 28.895 €;
    - *Euskara 2. mailan (2025),* euskararen irakasteko baliabideen sortzea (segida) 2. mailan programa berrien arabera, aurreikusi kostua: 15.800 € (postu erdi baten diruztatzea 2025eko urtarriletik abendura);
    - *Historia 2. mailan (2025),* pedagogia tresnen sorkuntzaren segida, aurreikusi kostua: 31.200€ (postu erdi baten diruztatzea 2025eko urtarriletik abendura):

## 2025eko jarduera bilduma…

- SVT Ene kaiera, ene bidelaguna (Hatier)
- Ene laborategiko liburuxka Fisika-Kimika (Hatier)
- Fisika-Kimika 5
- Fisika-Kimika 4
- Fisika-Kimika 3

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2024-25 ikasturteko proiektu deialdia:
  - 2024-25eko proiektu deialdian parte hartu duten 82 ikastetxeen 174 proiektuak aztertzea
  - Proiektuen azterketa, EEPko zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kultura Poloa, HM (Errektoretza eta DSDEN) eta irakaskuntzako sail bakoitzeko aholkulari pedagogikoak batzen dituen batzorde tekniko baten bidez
  - EEPk 2024ko urriaren 17ko Biltzar Nagusian erabakitzea
  - 2024-25eko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea:
    - Proiektu eramaileek 2025eko ekainaren 27rako helarazi beharreko egiaztagiriak aztertzea
    - Dirulaguntzaren tratatzea eta isurtzea
    - 2024-25eko bilana egitea
  - Egungo dispositiboa ebaluatzea eta aztertzea, eta 2025-26ko dispositiboaren orientabide eta modalitateak definitzea

- Irakaskuntzako datu basea:
  - Irakaskuntzako datu basea 2024-25 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
  - 2024-25eko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua euskara eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapen eta egituratzeari buruz:
  - Hitzarmenaren jarraipena egitea
  - 2024ko abenduaren 12ko Biltzar Nagusiak 2017-2022 esparru-hitzarmena urte batez luzatzeko gehigarria onartzea
    - 2024-25 lan programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebidun sail berriak irekitzeko egingarritasun

## … 2026ko jarduera programa

- Geografia : 4 kasu-azterketa (3.eko maila);
- Historia
  - XX. mendea : baliabide tematikoak (3.eko maila);
  - Frantses Iraultza (4.eko maila);
- *Matematikak 2. mailan* (2025), pedagogia tresnen sorkuntzaren segida, aurreikusi kostua: 1.000 €;
- *Ikasbide 6*, B1.2, fitxategia, AEKk sortu metodoaren azken atala ; aurreikusi kostua: 13.577 €

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2025-26 ikasturteko proiektu deialdia:
  - 2025-26ko proiektu deialdian parte hartu duten 77 ikastetxeen 144 proiektuak aztertzea
  - Proiektuen azterketa, EEPko zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kultura Poloa, HM (Errektoretza eta DSDEN) eta irakaskuntzako sail bakoitzeko aholkulari pedagogikoak batzen dituen batzorde tekniko baten bidez
  - EEPk 2025eko urriaren 16ko Biltzar Nagusian erabakitzea
  - 2025-26ko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea:
    - Proiektu eramaileek 2026ko ekainaren 26rako helarazi beharreko egiaztagiriak aztertzea
    - Dirulaguntzaren tratatzea eta isurtzea
    - 2025-26ko bilana egitea
  - Egungo dispositiboa ebaluatzea eta aztertzea, eta 2026-27ko dispositiboaren orientabide eta modalitateak definitzea
  - Dispositibo honen eta EEPko kide direnak garatutako arte eta kultura hezkuntzari loturiko dispositiboen arteko osagarritasunak aztertzeko lana hastea

- Irakaskuntzako datu basea:
  - Irakaskuntzako datu basea 2025-26 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
  - 2025-26ko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua euskara eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garapen eta egituratzeari buruz:

azterketen bilanak, murgiltze ereduzko proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea
- 2024-25 ikasturteko jardueren bilana eta 2025-26 lan programaren proposamena prestatzea

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
  - Dispositiboaz diren informazio bilkuretan parte hartzea
  - Leha labeltze dispositiboaz haurtzaindegi eta eragileen (kolektibitate, elkarte) eskaerei erantzutea
  - Labeltze batzordearen animazioa:
    - Labeltze eskaera egin duten edo 2025ean labela bukatu zaien haurtzaindegien diagnostikoa egitea
    - Labeltze eskaerak aztertzen dituen Labeltze batzordeko 2025eko abenduaren 5eko bilkura antolatzea eta animatzea
    - 2025eko ekainaren 30, irailaren 26 eta abenduaren 5eko bilkuren antolaketa, 2022ko ebaluazioaren oinarrian dispositiboan egin daitezken balizko aldaketak lantzeko partaideekin kontzertazioan: C ereduaren kargu kaiera aldatzeko esperimentazioa; labeltze dispositiboan etxe haurtzainak sartzeko kargu kaieraren lanketa abiatzea; euskarazko murgiltze sekzio bat sortzeko B ereduren aldaera

- Haurtzain etxeen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentsibilizazio dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)



  - 2017-2022 Hitzarmen luzatzearen jarraipena
  - Hitzarmen berriaren idazteko lan hitzartuaren bukatzea
  - 2025eko abenduaren 11ko Biltzar Nagusiak 2026-2032 esparru-hitzarmen berriaren onartzea
    - 2025-26 lan programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebidun sail berriak irekitzeko egingarritasun azterketen bilanak, murgiltze ereduzko proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea
    - 2025-26 ikasturteko jardueren bilana eta 2026-27 lan programaren proposamena prestatzea

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

- Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
  - Dispositiboaz diren informazio bilkuretan parte hartzea
  - Leha labeltze dispositiboaz haurtzaindegi eta eragileen (kolektibitate, elkarte) eskaerei erantzutea
  - Labeltze batzordearen animazioa:
    - Labeltze eskaera egin duten edo labela bukatu zaien haurtzaindegien diagnostikoa egitea
    - Labeltze eskaerak aztertzen dituen Labeltze batzordeko bilkurak antolatzea eta animatzea
    - 2022ko ebaluazioaren oinarrian eta partaideekin kontzertazioan, dispositiboari ekar litzaizkiokeen aldaketen integratzea:
      - C ereduaren kargu kaiera aldatzeko esperimentazioa labela lortzeko "bidean" diren 11 haurtzaindegirekin
      - Labeltze dispositiboan etxe haurtzainak sartzeko kargu kaiera sortzeko diagnostikoa eta esperimentazioa

- Leha dispositiboaren eramatea eta animazioaren inguruko gogoeta segitzea Euskal Elkargoarekin batean, eskumen partekatzearen baitan

- Haurtzain etxeen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentsibilizazio dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)

## 2025eko jarduera bilduma…

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik – eskaerarik ez 2025ean

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz guraso berriak sentsibilizatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea:
    - Ekoizpen bateratua
    - Familiei banatzea: 1 486 “pack” banatu ziren 2025ean, hau da, sortze deklarazioen %50a (2024an, berriz, 2.043, % 61, eta 2023an, 1.542, % 47)

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntza sustatzea:
    - Alorreko politika publikoaren koadroa definitzea:
      - Politika publikoaren koadroaren definitze lanen segitzea, definitu bide-orriaren oinarrian, hunkituak diren partaide guziekin kontzertazioan: egin ziren 12 kontzertazio bilkuren edukiaren tratatzea, esparrua definitzen duen dokumentuaren idazketaren hastea
    - Hizkuntzaren transmisio prozesua azkartzea erabilpenaren bidez: Mintzalagun proiektuari dirulaguntza

## … 2026ko jarduera programa

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzen segitzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ik. beherean Familia transmisioari buruzko atala)

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz guraso berriak sentsibilizatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea:
    - Ekoizpen bateratua
    - Familiei banatzea

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntza sustatzea:
    - Alorreko politika publikoaren koadroa definitzea:
      - Politika publikoaren koadroaren definitze lanen abiatzea eta bururatzea, definitu bide-orriaren oinarrian, hunkituak diren partaide guziekin kontzertazioan
    - Euskararen ikasteari helduen sentsibilizatzea: komunikazio kanpaina
    - Urrundik euskara ikasteko Ingura plataforma: edukia (A1-A2 mailak) Ipar Euskal Herriko errealitate linguistikoari egokitzea, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean Poctefa finantzaketa baten kari
    - Gazteei (bereziki hezkuntza sistema elebiduna uzten dutenei, hiztun osoak izateko maila nahikoa lortu gabe) zuzendutako formakuntza trinkoak obratzea, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean Poctefa finantzaketa baten kari

# 2025eko jarduera bilduma…

## 2/ Euskararen erabilpena sustatu

### 2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

  - Uda Leku eragilea laguntzen jarraitzea:
    - 2022-2024ko Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren obratzearen ebaluazioa, testuinguru, baliabide eta emaitza adierazleak oinarritzat hartuz
    - Helburu eta Baliabide Urte anitzeko Hitzarmenaren berritzea
    - Helburuen gauzatzearen jarraipena
    - Euskarazko AIGA diplomaren garapen posibleen azterketa
    - Departamenduko gazteria, engaiamendua eta kirolaren zerbitzuari (DGEKZ) eta Familien Laguntza Kutxari (FLK) eskaerak: taldeko aisialdiaren harrerari dagozkion estatistikak biltzeko

  - Euskarazko opor egonaldien antolaketa:
    - Mugaz gaindiko euskarazko egonaldien bi esperimentazio berriendako Merkatu Publikoa abiatzea, elebidun saileko 100 ikasleei zuzendua, hiru urteko epean; Poctefa programaren baitan eginiko finantzamendu eskaeraren kari, Eusko Jaurlaritzarekin (Hizkuntza Politika Saila eta HABE) eta Nafarroako Foru Gobernuarekin (Euskarabidea) elkarlanean
    - Mekatuaren esleipena:
      - 8-11 urteko Ipar Euskal Herriko 80 haurrendako 7 eguneko 6 egonaldiren esperimentazioa
      - 12-15 urteko Ipar Euskal Herriko 20 gazteendako 10 eguneko egonaldi baten esperimentazioa

# … 2026ko jarduera programa

## 2/ Euskararen erabilpena sustatu

### 2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

  - Uda Leku eragilea laguntzen jarraitzea:
    - Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren obratzearen jarraipena
    - Urteko ebaluazio, testuinguru, baliabide eta emaitza adierazleak oinarritzat hartuz
    - Euskarazko AIGA diplomaren garapen posibleen azterketa segitzea
    - Departamenduko gazteria, engaiamendua eta kirolaren zerbitzuari (DGEKZ) eta Familien Laguntza Kutxari (FLK) eskaerak egiten segitzea: taldeko aisialdiaren harrerari dagozkion estatistikak biltzeko

  - Euskarazko opor egonaldien antolaketa:
    - Merkatu Publikoaren kari hautatuak izan diren eragileekin partaidetzan aritzea euskarazko egonaldien prestatzeko eta gauzatzeko
    - Poctefa partaideekiko (Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Foru Gobernua) elkarlana eramatea euskarazko egonaldien komunikazioa, balioztatzea eta ebaluazioa gauzatzeko
    - Informazioa hedatzea eta sentsibilizatzea, familiekin eta haur eta gazte elebidunekin lanean ari diren sare profesionalen bidez
    - Parte hartzaileen hautaketa, zozketaren bitartez, irakaskuntza saila, generoa, banakako eta taldeko parte hartze eskaera eta jatorri geografikoaren arabera
    - Euskarazko egonaldien iragaite egokiaren jarraipena
    - Eragile eta familien iritzietan oinarriturik 2026ko egonaldien ebaluazioa eramatea
    - Ebaluazioaren gomendioen gain oinarrituriko gehigarria idaztea, ondoko ediziorako adosturiko balizko aldaketak zehaztuz

## 2025eko jarduera bilduma…

- **Kirola**

  - Laguntza, galdatuz gero: Aviron Bayonnais, Hormadi hockey

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - 2. mailako ikastetxeak eta liburuaren munduan diharduten elkarteak euskarazko euskarriak erosten laguntzea:
    - Eragileengandik jasotako laguntza eskaeren tratatzea: 14 ikastetxeri (irakaskuntza publikotik 7, pribatutik 1 eta Seaskatik 6) 5.940,19 €-koak laguntzak esleitu zaie eta 16 elkarteri 2.311,67 €-koa, orotara 7.248,15 €

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eskudun diren erakundeekin (KAEZ, Akitania Berria Eskualdea, ALCA, EKE, EEP) elkarlanean (gidaritza EEPren esku) lan egitea, euskarazko argitalpenerako kate eraginkorra egituratzeko:
    - Bide orria lantzen segitzea, 2023an Axialesek (ALCA/EEP kofinantziazioa) egin azterketan eta edizioko eragileekiko trukaketetan oinarrituz
    - Marko horren baitan, alor horretako eragile nagusia (ELKAR) ikuskatzeko

## … 2026ko jarduera programa

- **Kirola**

  - Etorkizunean bereziki gazteei zuzenduriko euskarazko kirol jardueren eskaintzaren garapenaren aldeko politika publikoko koadroa finkatzeko helburuarekin:
    - Esperimentazio bat eramatea 2-3 herri boluntarioekin herrian proposatuak diren kirol jardueretan euskararen presentziaren eta erabilpenaren lekuaren egoera-akta bat egiteko: eskaintzaren egoera-akta, euskaraz proposatuak diren kirol jardueren zerrenda, seinaletika, garapena eta laguntzarako pistak…
    - Eragile (klubak, elkarteak…) boluntarioak laguntzea elebidunezko edo euskarazko kirol jardueren eskaintza egituratzeko: Avrion Bayonnais-rekin eta Hormadi-rekin hasitako lanaren jarraipena
    - Existitzen den eskaintza zerrendatzea eta ezagutaraztea: EEPko kideekin partaidetzan existitzeen den eskaintzari buruzko gogoetak eta zerrendatze lana abiatzea, gaiari buruzko etorkizuneko komunikazio kanpaina bati buruzko gogoetak abiatzea (ik. 10. fitxa beharren deklinazioan)
    - Mugaz gaindiko eremuan, bereziki Hiruko Itunaren kari, euskarazko kirol jarduerak garatzeko aukerak aztertzea Euskadiko eta Nafarroako kideekin loturan

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - 2. mailako ikastetxeak eta liburuaren munduan diharduten elkarteak euskarazko euskarriak erosten laguntzea:
    - Dispositiboa bideratzea

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eskudun diren erakundeekin elkarlanean lan egitea, euskarazko argitalpenerako eragile eraginkor kate baten egituratzeko:
    - Ikerketaren ondorioetan oinarrituz, bideo orriaren obratzea, euskarazko argitalpeneko eragileak laguntzea zuzenbide komuneko dispositiboak erdiesten, eta beharrezkoa balitz, dispositibo horien egokitzeko edota EEPren gaur egungo laguntza dispositiboen egokitzeko aukerak aztertzea,

erabakia (ALCA/EEP kofinantziaturik), Axiales kabineteak eramanik, eragilearen egoera argitzeko, bere rola zehazteko eta modelo ekonomikoa berriz lantzeko; ikuskaritza hori ezinbestekoa izanki, existitzen diren diruztatze dispositiboen bitarteko laguntza egituratzailea eman aitzin

**2/2 - Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz**

- **Hedabideak**

- Euskarak hedabide publikoetan duen lekua garatzea:
  - Ici Pays Basque (France Bleu Pays Basque ohia):
    - Arduradunekin abiatu lanaren jarraipena, euskararen lekua garatzeko aukera aztertzeko beren programazioan: arduradunekin elkartzea, abiatu lanen jarraipena egitea
  - France 3 Nouvelle Aquitaine - Noa :
    - Eztabaiden abiatzea arduradunekin France 3n euskaraz zabaldutako programak garatzea ahalbidetuko dituzten pistak aztertzeko
    - Beste eskualde hizkuntzen egoeraren analisia, eskualde horietan eskualde hizkuntzari toki askoz ere handiagoa ematen dieten aterabideak aztertzeko: trukaketak France 3 Bretagne-rekin eta France 3 Corse-rekin, trukaketak Bretainia Eskualdearekin haien eskualdean plantan ezarritako COM TVa aztertzeko

- Eragileak egituratzen laguntzea:
  - Kanaldude laguntzen segitzea:
    - ARCOMarekin (Ikus-entzunezkoen goi kontseilua) izenpetu duen hitzarmena segitzea, eta Eskualdearekin izenpetu duen Helburu eta Baliabide Hitzarmenaren (COM) garatzea
    - Aldudarrak Bideo eta EEPren arteko Helburu eta Baliabideen Hainbat Urtetako Hitzarmen (HBH) berriaren definitzea
    - DLAaren segipena
    - Hedapen kanalen dibertsifikaziorako laguntza:
      - TNTn hedapenaren egingarritasun ikerketa
      - TVPIn eskaintzaren dibertsifikazioaren azterketa



zuzenbide komuneko dispositibo horien osagarri gisa sartzeko
  - Elkar-en ikuskatzearen ondoriotan oinarrituz, bide orria egokitzea eta hartu beharreko erabakiak eta egokitzapenak identifikatzea sailaren egituraketa indartzeko

**2/2 - Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz**

- **Hedabideak**

- Euskarak hedabide publikoetan duen lekua garatzea:
  - Ici Pays Basque (France Bleu Pays Basque ohia):
    - Arduradunekin abiatu lanaren jarraipena, euskararen lekua garatzeko aukera aztertzeko beren programazioan: arduradunekin elkartzea, abiatu lanen jarraipena egitea
  - France 3 Nouvelle Aquitaine - Noa :
    - Programen arduradun berriarekin elkarrizketen jarraipena, France 3 katean euskarazko programen hedapenaren garapen aukerak aztertzeko eta bereziki:
      - “Txirrita” emankizunaren ordezkatzeko, EiTB eta Euroeskualdearekin kolaborazioan ekoiztuko litzatekeen mugazgaindiko emankizun berriaren proiektuaren segipena
      - France 3 NoA katean, euskarazko kirol tarteak sortzeko aukeren azterketa, eta bereziki Kanaldude telebistarekin elkarlanean
    - France 3 Bretainia eta France 3 Kortsikarekin hasitako harremanen segipena, baita Bretainiako Eskualdearekin ere, bereziki lurralde bakoitzean sortutako COM TVen azterketa jarraitzeko

- Eragileak egituratzen laguntzea:
  - Eragileen kategorizazioaren eta dirulaguntzen ebaluazioa eta azterketa, beharren deklinazioan oinarrituz
  - Kanaldude laguntzen segitzea:
    - Aldudarrak Bideo eta EEPren arteko Helburu eta Baliabideen Hainbat Urtetako Hitzarmenaren (HBH) jarraipena
    - 2025ean eramandako DLAri segida emateko, egituratze barne-

## 2025eko jarduera bilduma…

- Euskal Hedabideak egituratzeko laguntza segitzea: komunikabideen arteko espazio estrategikoa autonomizatzea, publizitate eremu komuna sendotzea, mezenasgo eskaintza sortzen laguntzea, mintegi bat antolatzea eta beste lankidetza eta mutualizazio batzuk abian ezartzea
- Euskal Irratiak eragileari laguntza berezia:
  - Lurraldearen programazioaren ekoizpen eta hedapenaren jarraitzea
  - Goizeko emankizuna berritua eta filmatuaren martxan ezartzearen jarraitzea
  - Estrategia digitalaren martxan ezartzearen segitzea
  - EEP eta Euskal Irratien urte anitzetako HBHren segitzea
- Irratigintzako eragileak laguntzea DAB+ araua plantan ezartzeko
  - Gai horren inguruan parlamentariak mobilizatzen segitzea eta ARCOMeko lehendakari berriari laguntza deia
  - ARCOMarekin harreman teknikoak izaten segitzea: 2025-09-25ean ARCOMeko arduradunekin, irrati-elkarteen antolakunde ordezkariekin (SNRA, SNRL), Euskal Irratiaken arduradunekin eta EEPkoekin bilkura, Euskal Irratiak sarearen estrategia digitalaren eta webgune berriaren aurkezpen egunean
- Herria astekariaren modernizazioa eta digitalizatzeko estrategia segitzea eta laguntzea (webgunea berritzea, sare sozialak sortzea...)
- Bada hedabide berria egituratzen segitzea. Bada gazteendako egina den hedabidea da, komunikatzeko molde berriak baliatzen dituena, bereziki sare sozialak eta formatu digitala

- Profesional euskaldunak formatzea:
  - « Kazetaritza euskaraz » Unibertsitateko Diplomaren jarraipena: UDa obratzearen eraginak neurtu ikasleentzat, hedabideentzat eta goi mailako ikastetxeentzat (ik. Politiken ebaluazioa eta jarraipena)
  - EEPk, Euskal Irratiak eta ici Pays Basque-ekin eramandako hizkuntza kalitatearen inguruko entzuketa eta analisi lana, antenako euskararen kalitatea hobetzen laguntzeko (ik. Hizkuntza baieztapenak eta baliabideak)

- Hedabideen eremuan diren finantzaketa dispositibo komunei buruzko behatze iraunkorra

- ETBren hedapena:

## … 2026ko jarduera programa

antolaketa berriaren segipena eta laguntzea

- Euskal Hedabideak egituratzeko laguntza segitzea:
  - Publizitate eskaintza bateratuaren indartzea, besteak beste Kanalduden zuzenezko kirolari dagokion eskaintza bereziaren sorrera bultzatuz
  - Mezenasgoa garatzeko eskaintza berezi baten garapenean laguntza
  - Diagnostiko berriaren gogoeten prestaketan, bilkuren animazioan eta txostenaren idazketan laguntzaren ekarpena, baita ondoko 5 urteendako helburuak finkatzeko ekarpenak ere
  - Mintegi baten antolaketa eta beste elkarlan edo mutualizazioen gauzatzea
- Euskal Irratiak eragileari laguntza berezia:
  - Lurraldearen programazioaren ekoizpen eta hedapenaren jarraitzea
  - Goizeko emankizuna berritua eta filmatuaren martxan ezartzearen jarraitzea
  - Estrategia digitalaren martxan ezartzearen segitzea
  - EEP eta Euskal Irratien urte anitzetako HBHren segitzea
- Irratigintzako eragileak laguntzea DAB+ araua plantan ezartzeko
  - ARCOMarekin harreman teknikoak izaten segitzea
- Herria astekariaren modernizazioa eta digitalizatzeko estrategia segitzea eta laguntzea (webgunea berritzea, sare sozialak sortzea...)
- Bada hedabide berria egituratzen segitzea. Bada gazteendako egina den hedabidea da, komunikatzeko molde berriak baliatzen dituena, bereziki sare sozialak eta formatu digitala:
  - Garapen ekonomikoa sustatzeko laguntza, eta batez ere publizitate eskaintzaren sorreraren bitartez
  - "Eta zuk?" POCTEFA proiektuaren gauzatzean segipen hurbila eta laguntza
  - Euskal hedabideak elkartea integratzeko eskaeraren segipena
- Euskal Irratiak eta Kanaldude kide dituen eta 5 hedabide biltzen dituen "SAREBIDE" izeneko POCTEFA elkarlan proiektuaren segipena

- Profesional euskaldunak formatzea:
